



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, 2021eko uztailaren 30ekoa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, Zumaiaiko HAPOren irismen-dokumentua ematen duena.

AURREKARIAK

2021eko maiatzaren 13an, Zumaiaiko Udalak eskabidea aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzaren aurrean, Zumaiaiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua eman zedin, bat etorrita Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrekin eta Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin.

Eskabidearekin batera hainbat dokumentu erantsi zituzten, tartean, Planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatzen den dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa, honako hauetan ezarritako edukiarekin: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. eta 18. artikulua, eta Planen eta programen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzeko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Horien emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zizaion Zumaiaiko Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu bazituela ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan araber.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenean ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikuluan araber, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, bestek

Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz



beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egingo zaie planei eta programei, baita haien aldaketei ere, baldin eta administrazio publiko batek hartzen edo onartzen baditu eta legezko edo arauzko xedapen batek aginduta egiten eta onartzen badira, ingurumen-inpaktua ebaluatu behar zaien proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua zehazten dutenean eta ur-baliabideak kudeatzeko direnean.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei buruz, eta, hain zuzen ere, Zumaiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra plan horien artean dago.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organok ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek 18.1 artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaldu eta osatzen du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zumaiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (aurrerantzean, Plana) ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Zumaiako indarreko hirigintza-plangintza arau subsidiarioek osatzen dute; horiek 2004ko otsailaren 17an onetsi ziren behin betiko (2006ko otsailaren 6ko GAO, 24. zk.).

HAPO honen xedea da gaur egun indarrean dagoen Zumaiako udal hirigintza-plangintza berrikustea, udalerrria antolamendu-eredua eta -estrategia berrikusteko beharrari erantzuteko, bereziki honako gai hauetan: etxebizitza berrien aurreikuspena, jarduera ekonomikoetarako lurzorua, gaur egungo hiri-ehuna berritzea eta hobetzea, eta natura-ingurunea babestea eta gaur egungo egoerara eta beharretara egokitzea. Gainera, udal-plangintza egokitu nahi da gaur egungo lege-esparrura eta goragoko mailako lurralde-plangintzara.

HAPOnen Aurrerapenean proposatutako bizitegi-lurzoruak 16 hektareako azalera du, non 668 etxebizitza berri aurreikusi baitira. Ez da proposatzen landa-lurzoru berriak kolonizatzea; izan ere, proposamenak gaur egungo hiri-lurzuruan eta lurzoru urbanizagarrian egiten dira. Proposatutako bizitegi-proposamenak honako hauek dira:

- Gauzatzeko dauden indarreko plangintza-eremuak: Zumaiako herrigunean kokatuta dauden hiri-lurzoruko bost eremu dira (BIZ-ZUM 01 Erribera, BIZ-ZUM 02 Odieta-San Jose, BIZ-ZUM 03 Arritokieta, BIZ-ZUM 04 Arrangoleta, BIZ-ZUM 05 Arrangoleta), eta Oikia auzoko beste eremu bat (BIZ-OIK 01); izan ere, eremu horietan bizitegi-garapen bat gauzatu da. Proposamen hauen xedea hiri-bilbeko hutsarteak osatzea da (10.575 m²), eta hutsarte horietan 60 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten da.
- Arau subsidiarioetan berrikusi diren eta gauzatzeko dauden eremuak: Zumaiako herrigunean, BIZ-ZUM 07 Estazioa eta BIZ-ZUM 08 Torreaga hiri-lurzoruko eremuetako etxebizitzaren eraikuntza-parametroak berriz antolatzea eta mugatzea planteatzen da. Eremu horiek N-634 errepidearen ekialdean daude, eta iparraldean Urolako itsasadarrarekin muga egiten dute. BIZ-ZUM 08 eremuaren kasuan, zehazki, aurrerapenak izapidetzen ari diren arau subsidiarioen aldaketaren proposamena hartzen du barne. Herrigunearen hegoaldean dagoen BIZ-ZUM 09 Puntanoeta II sektorean, arau subsidiarioetan proposatutako etxebizitza kopurua berrikustea eta futbol-zelai berria eraikitzea proposatzen da. Oikian, BIZ-OIK 02 eta BIZ-OIK 03 eremuetako hiri-lurzoruak berrantolatzen eta dentsifikatzen dira, eta etxebizitza berriak eraikitzea proposatzen da.

Oro har, antolamenduan berrikusitako eremuek 56.842 m²-ko azalera dute guztira, eta eremu horietan 421 etxebizitza berri egitea aurreikusten da.

- Proposamen berria: batetik, Basusta poligonoaren (BIZ-ZUM 14 Basustabidea) ondoan dagoen hiri-hutsarteak osatzeko aukera planteatzen da, eremua berriz dentsifikatuz; eta bestetik, BIZ-ZUM 16 Futbol Zelaia eremuaren erabilera aldatzea proposatzen da, gaur egun futbol-zelaia dagoen eremuan etxebizitza kolektibo babestua eraikiz. Oro har, proposamen berri horiek hiri-lurzoruaren 9.499 m²-ri eragiten diete.
- Hiri-hobekuntzarako eremuak: bi eremu proposatzen dira Zumaiako herrigunean (BIZ-ZUM 21 Juan Belmonte eta BIZ-ZUM 22 Jadarre) eta beste bat Narrondo auzoan (BIZ-NAR 01 Zementera). Eremu horietan ez da etxebizitza gehiago eraikitzea proposatzen,

eta gaur egungo hiri- eta eraikuntza-paisaia hobetzeko jarduketak planteatzen dira. Hiri-berroneratzeko eremuek 30.946 m²-ko azalera dute guztira.

- Hiri-berrikuntzako eremuak: eremu horietan (52.298 m²), urbanizazioa eta eraikuntza berrantolatu eta berritu dira. BIZ-ZUM 23 Estazioa eremuan, Euskotrenen geltokiaren ondoan dagoen 2.134 m²-ko orubean, 20 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da. Gainera, Narrondo auzoan kokatuta dagoen eremuan (BIZ-NAR 02 Olaizola) 80 etxebizitza proposatzen dira, 50.164 m²-ko azalera.
- Erabilera-aldaketa: BIZ-ZUM 24 Urola eremuaren –Torreaga eremuaren ondoan dago kokatua, Urolako itsasadarraren ondoan– erabilera aldatzea proposatzen da, hain zuzen ere jarduera ekonomikoetatik bizitegi-erabilerara.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak 27 hektareako azalera du guztira, eta indarrean dagoen plangintzan planteatuta dauden eta oraindik gauzatzeko dauden garapenak jasotzen ditu, baita proposamen berriak ere. Zehazki, Oikia auzoko proposamen berriekin 6 ha lurzoru urbanizaezin okupatuko lirateke.

- Gauzatzeko dauden indarreko plangintza-eremuak: Oikia auzoan kokatuta dauden JE-OIK 01 Jesuskoa (131.690 m²) eta JE-OIK 02 (66.726 m²) industrialdeen garapena osatu nahi da, hutsik dauden lurzatietan industria-instalazioak eraikiz. Gainera, Joxe Mari Korta industrialdean, hutsik dagoen JE-KOR 01 (1.054 m²) Empresa-Mintegia lurzatiaren erabilera aldatu da (zuzkidura edo hirugarren sektorerako lurzattia), tokiko ekintzailatzara bideratutako bulegoen erabilera izan dezan.
- Proposamen berria: Oikian egiteko dauden industria-eremuak osatu ondoren, aurrerapenak Jesuskoa industrialdea handitzeko aukera proposatzen du, lehendik dauden azpiegiturak aprobetxatuz: lehenengoa JE-OIK 03 Jesuskoa I (46.937 m²) eremuan eta bigarrena JE-OIK 04 (14.747 m²) Jesuskoa II eremuan. Santiago Auzoan, kirol-portuaren parean, JE-ZUM 01 (11.010 m²) Done Jakue eremuan, hirugarren sektoreko jarduera bat ezartzea proposatzen da, eraikina finkatuz edo berri bat planteatuz. Era berean, aparkaleku handi bat planteatzen da, jarduerari berari nahiz Zumaiako periferian (AP-ZUM 03) disuasioko aparkalekuak eraikitzeke beharrari erantzuteko.

Oro har, txertatutako ekipamendu guztiak Zumaiako herrigunearen inguruan kokatutako lurzoruak dira, eta 2 hektareako azalera hartzen dute guztira. Ekipamendu horietako bostetan, erabilerak aldatzea (EK-ZUM 01, EK-ZUM 02, EK-ZUM 03, EK-ZUM 04) edo areagotzea (EK-ZUM 05) proposatzen da. Hiru dira proposamen berriak:

- EK-ZUM 10 Futbol Zelaia futbol-zelai berriari buruzko proposamena BIZ-ZUM 09 Punta Anoeta II bizitegi-erabilerako alternatibaren barruan sartzen da.
- Itsasargiaren eta kaiaren artean kokatuta dagoen EK-ZUM 06 (2.166 m²) eremua igerileku natural gisa erabiltzea proposatzen da.

- EK-ZUM 13 (3.425 m²) eremuan, ekipamendu pribatu bat garatzeko aukera baloratu da, Santa Luzia baserrian hotel txiki bat gaituta. Baserria Zumaiaren irteeran dago, Getariara doan N-634 errepidearen eskuinaldean.

Aurrerapenak gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioetan jasotako espazio libreak (EL-ZUM 02 Itsasargia eta EL-ZUM-03 Flores) hartzen ditu barne, eta hamar eremu berri proposatzen ditu: EL-ZUM 04 Juan Belmonte, EL-ZUM 05 Larretxo, EL-ZUM 06 Olazabal, EL-ZUM 07 Merkatua, EL-ZUM 08 Komentua, EL-ZUM 09 Komentua I, EL-ZUM 10 Hortuak, EL-ZUM 11 San Jose, EL-NAR 01 Zementera eta EL-KOR 01 Txantonenea (eguzki-baratzea). Eremu horietako gehienak berdeguneak, espazio libreak edo hutsak dira, eta hiri-bilbearen barruan daude. Guztira, aipatutako espazio libreak 11 ha inguruko azalera hartzen dute.

Komunikazioei dagokionez, 11 aparkaleku-eremu proposatu dira guztira, 10 Zumaiako herrigunean (AP-ZUM 01 Erkibe, AP-ZUM 02 Portua, AP-ZUM 03 Done Jakue, AP-ZUM 04 Urola, AP-ZUM 05 Ikatz, AP-ZUM 06 Torreaga, AP-ZUM 07 Punta Anoeta II, AP-ZUM 08 Sagarbide I, AP-ZUM 09 Sagarbide II eta AP-ZUM 10 Gernika) eta beste bat Oikia auzoan (AP-OIK 01). Bide-sarearen proposamenen artean, BI-ZUM 05 jarduketa nabarmendu behar da; izan ere, 83 metroko zubi bat aurreikusten da Narrondo ibaiaren gainean, Axular etorbidea eta Punta Anoeta elkarrekin lotuz.

Mugikortasun alternatiboari dagokionez, oinezkoentzako eta/edo txirrindularientzako sei ibilbide proposatzen dira (OM-ZUM 01 Talaimendi, OM-ZUM 02 Axular, OM-ZUM 03 Zumaia-Korta-Oikia, OM-ZUM 04 Zumaia-Zarautz, OM-NAR 01 Narrondo -Zestoa, OM-OIK 01 Oikia-Igartza eta Oikoa industrialdeak), eta horiek 9.580 metroko luzera izango lukete guztira. OM-ZUM 03 Zumaia-Korta-Oikia eremuari dagokionez, aurrerapenak bi aukera planteatzen ditu trazadurarako: bata Korta industrialdetik igarotzen da eta Urolako itsasadarraren gaineko bi pasagune zeharkatzen ditu; eta bestea Beduatik igarotzen da, eta ez du ibaiaren gaineko pasagunerik, baina malda handiko tartekak ditu eta tarteren batean handitu egin behar da GI-3760 errepidearen galtzada. Ibilbide horietako asko lehendik dauden bideetatik edo landa-bideetatik igarotzen dira, eta zenbait jarduketa egin beharko dira oinezkoen eta txirrindularien erabilera gaitzeko.

Bestalde, aurrerapenak lurzoru urbanizaezina zonatan banatzeko proposamena jasotzen du. Zehazki, proposatutako lurzoru urbanizaezinaren antolamendurako kategoriak honako hauek dira: Babes Bereziko kategoria (Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak eta zuhaitz orban autoktonoak), Ingurumen-hobekuntzaren kategoria (ingurumen-hobekuntzako eremuak-Nekazaritza eta Basozaintzako LPS eta hezegune naturalak-Hezeguneen LPS), basoen kategoria, nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko kategoria (balio estrategiko altua, trantsizioko landa-paisaia, nekazaritza nahiz abeltzaintzako eta landazabaleko zona-Hezeguneen LPS) eta gainazaleko uren babesa.

Era berean, aurrerapenak gainjarritako baldintzatzaileak gehitu ditu lurzoru urbanizaezinak antolatzeko kategorietan. Baldintzatzaile horiek natura-arriskuei eta klima-aldaketari, azpiegitura berdeari, intereseko ibilbideei, kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei, eragin akustikoko eremuei, segurtasunari eta ondare arkeologikoari buruzkoak dira.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasangarritasun-irizpide aplikagarriak

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira 2020ko IV. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoak eta jarduketa-ildoak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, kontuan hartuko dira Planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak.

Zehazki, Plana zuzentzeko, garapen jasangarriko honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Lurzorua zentzuz eta era intentsiboan erabiltzea eta lehendik ere artifizializaturik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala ez dadin urbanizatu.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzorua gutxiago zigilatzea, haren erabilera jasangarriagoaren bidez, era horretan ahal beste eginkizun atxiki ditzan.
- d) Habitatak eta espezieak, natura-ingurumena eta lotura ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e) Biodibertsitatearen galera geldiaraztea, ekosistemak lehengoratztea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
- f) Paisaiak eta kultura-ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- h) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- i) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- j) Energia-aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- k) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien eraginpean bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- l) Klima-aldaketaren aurreko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea apaltzeko eta aldaketara egokitzeke neurriak sartuz.
- m) Arrisku naturalak gutxitzea.
- n) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, eragileen eta lurzoruaren erabiltzaile potentzialen berme juridikoa eta jarduera bultzatuz.

Ingurumen-azterketa estrategikoak aztertu beharko du proposatutako jarduerak nola integratzen dituzten aipaturiko garapen jasangarriko printzipioetatik ondorioztatutako

ingurumen-helburu estrategikoak eta jasangarritasun-irizpideak. Horretarako, helburuok betetzeko hartutako neurriak/irizpideak identifikatu beharko ditu.

3. Eremu geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

HAPOnen lurralde-eremua Zumaia udalerrri osoa da, eta 10,76 km²-ko azalera du. Zumaia Urola Kosta eskualdean dago; Kantauri itsasoarekin muga egiten du iparraldean, Debarekin eta Zestoarekin mendebaldean, Aizarnazabalekin eta Errezilekin hegoaldean, eta Getariarekin ekialdean. Udalerrria Urola ibaiaren ibilguak baldintzatzen du hidrologikoki.

- Zumaia sare hidrografikoa Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikokoa da, eta, zehazkiago, Urola ibaiaren unitate hidrografikoa. Urola ibaia hego-ekialdetik iparraldera doa herrigunearen ekialdean, eta udalerrriaren iparraldeko muturrean itsasoratzen da Kantauri itsasoan. Udalerrriko ibilgu nagusia da. Gainera, udalerrriaren herrigunea Narrondo edo Arroaerreka ibaiak zeharkatzen du, hegoaldetik iparraldera, udalerrriko kirol-portuaren parean Urolako itsasadarrarekin bat egin arte. Narrondo ibaiaz gain, honako hauek dira udalerrria barrutik zeharkatzen duten Urola ibaiaren adar nagusiak: Narbazta, Gaztelu, Mako, Eguzkitza eta Santiago. Era berean, udalerritik igarotzen diren Narrondo ibaiaren adar nagusiak Kantera eta Jadarre dira. Udalerrriaren ipar-mendebaldeko muturretik igarotzen diren eta zuzenean itsasoratzen diren beste ur-ibilgu batzuk Andikara eta Oristoko erreka dira.
- EAEko (Kantauriar isurialdea) ibaien eta erreken ertzak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialari (aurrerantzean, LPS) jarraikiz, Urola ibaia, N-634 errepideko zubiraino udalerritik igarotzen dena, IV. mailakotzat jota dago; hau da, 200 eta 400 km² arteko isurtze-arroa du. Bestalde, Narrondo ibaia I. mailakoa da, eta 10 eta 50 km² arteko isurtze-arroa du. Santiago Mako, Narbazta eta Gaztelu errekek 1 eta 10 km² arteko isurtze-arroa dute (0 maila). Gainerako ur-ibilguak 00 mailakotzat jotzen dira; km² bat baino gutxiagoko arroak dira. Gainera, ingurumen-osagaiaren arabera, Urola ibaian, lehengoratzeko beharra duten eremuak, lehentasunezko natura-intereseko eremuak eta ongi zaindutako landaredia duten eremuak identifikatu dira (baita Narbazta errekan ere).
- Itsas-lehorreko jabari publikoari (ILJP) dagokionez, Zumaia kostalde osoa eta Narrondo ibaia, Urola ibaia eta haren inguruak ILJPren barruan daude.
- Itsasertzeko LPSk babes zorrotz eta berezi bateragarriko eremuak identifikatzen ditu, udalerrriaren ipar-mendebaldeko muturrean dauden itsaslabarrei dagozkienak, baita udalerrian zehar dauden lehengoratu beharreko eremu degradatuak eta hobetu beharreko ekosistemak ere.
- Udalerritik igarotzen den Urola ibaiaren zatia Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) gisa dago identifikatuta: Urolako Itsasadarra/ Ría del Urola (ES2120004). Zentzu horretan, 215/2012 Dekretua izan behar da kontuan, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena.
- Gainera, Urolako itsasadarra EAEko hezeguneeen inbentarioan (A1G2 kodea) eta Hezeguneeen LPSan (II. taldea) dago.

- Udal-mugarte osoa Euskal Kostaldeko Geoparkean dago, eta, gainera, ipar-mendebaldeko zatia Deba-Zumaia Biotopo Babestuan.
- Horrez gain, udalerraren ipar-mendebaldeko muturrean interes geologikoko zazpi leku daude (IGL): Deba-Zumaiaiko Goi Kretazeoko hareazko flyschak, KT muga Zumaian, P/E muga Zumaian, Itzurun hondartzaren multzo geomorfologikoa, Zumaiaiko Paleozenoa eta GSSPak, Pikote luizien itsasertzeko multzo geomorfologikoa eta Zumaia-Getariako flysch eozenoko iknofosilak.
- Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko (KEPH) Eremu Babestuen Erregistroak behar bezala zehazten ditu Santiago eta Itzurun hondartzetan bainatzeko eremuak. Bestalde, Urolako itsasadarrak udalerritik igarotzean dituen babes-figurak jasotzen ditu: urari lotutako Natura 2000 Sareko espazioa (Urolako itsasadarraren KBE), hezeguneen estatuko inbentarioan sartutako hezegunea (Urolako itsadarra) eta Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- Intereseko beste naturagune batzuei dagokienez, LAGetako Interes Naturalistikoko Guneen Katalogoan eta EAeko Natura Gune Garrantzitsuen Katalogo Irekian honako hauek sartzen dira: Aitzuri Punta (Mendata) itsasertza, Santiago hondartzaurreko hareatza eta padura, eta Urolako itsadarra, Bedua-Zumaia tartean.
- Udalerrian ez dago Onura Publikoko Mendirik, ezta EAeko Igarobide Ekologikoen Sareko elementurik ere.
- Zumaia udalerria Zumaia-Iruneko lurpeko ur-masaren gainean dago. Urola ibaiaren ertzak, Narrondo ibaiaren eskuinaldean dagoen herrigunearen zati bat barne, interes hidrogeologikoko kokaleku batean daude.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera, balio estrategiko handiko lurzoruek 198 hektareako azalera okupatzen dute guztira, hau da, udal-mugartearen % 18,5.
- Udalerrian Batasunaren intereseko 18 habitat mota daude, eta horiek azaleraren % 32 inguru hartzen dute guztira. Honako hauek dira udalerrian presentzia gehien duten habitatak (lurraldearen % 0,2 baino gehiago): Estuarioak (1130), Itsasbeheran estalita ez dauden lautada lohitsu edo hareatsuak (1140), Kosta atlantiko eta baltikoen landaredia duten itsaslabarrak (1230), Spartina-zelaiak (*Spartinion maritimae*) (1320), Kostako duna finkatuak, landaredia belarkareekin (duna grisak) (2130*), Itsasertzeko txilardi lehor atlantikoak, *Erica vagansekin* (4040*), Altuera txikiko sega-larre pobreak (6510), Haltzadi eta lizardiak (91E0*), eta *Quercus ilex* eta *Quercus rotundifolia* basoak (9340).
- Gainera, *Zostera noltii*, *Limonium humile* eta *Chamaesyce peplis* espezieek hainbat lehengoratzeko-eremu dituzte Urolako itsasadarrean eta Santiago hondartzan.
- Narrondo ibaiaren ibilgua bisoi europarrantzako Interes Berezikoko Eremu gisa katalogatuta dago. Animalia hori galzorian dagoen espezie gisa ageri da Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoan.
- Udal-barruti ia osoa Kosta-Urola-Garate sektorean dago; linea elektrikoetan abifauna talken eta elektrokuzioen aurka babesteko eremua da.
- Paisaiari dagokionez, herrigunea Zumaia arroaren gainean dago; udalerraren ekialdea eta hegoaldea Aizarnazabalgo ikus-eremuari dagozkio, eta ipar-mendebaldeko eremua, berriz, Aitzuriko ikus-eremuari. Azken hori EAeko Paisaia Apartekoen eta Bikainen

Katalogo Irekian dago. Punta Aitzuri - Zumaia itsasertz osoa natura-interes katalogatuko eremua da, baita Itsas Eragin Katalogatuko Paisaia ere. Zarautz-Azpeitiko Eremu Funtzionaleko Paisaia Katalogoak Paisaia Interes Bereziko Eremu (PIBE) hauek identifikatzen ditu: Askizu-San Prudentzio, Artadi eta Zumaia hiri-inguruko eremua.

- Udalerrian, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak dituzten edo izan dituzten lurzati inbentarioan jasotako 73 kokaleku identifikatu dira guztira; industria-jarduera aktiboak edo ez-aktiboak, betelanak edo zabortegeak dituzten lurzoruak dira.
- Zumaia udalerrian, Urola eta Narrondo ibai-ibilguekin lotutako uholde-arriskua erregistratu da, 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denboratakoa. Narrondo ibaia, Zumaia herrigunetik igarotzen den tartean, III. taldeko UAHE ES017-GIP-URO-01 eremuan sartzen da.
- Oro har, udalerrriak akuiferoen kutsadurarekiko urrakortasun txikia edo oso txikia du, hego-mendebaldeko zerranda txiki batean salbu, bertan handia baita urrakortasuna.
- Ia udalerrri osoa higadura txiki-txikiko eta lurzoruaren galera onargarria duten eremuetan dago; hala ere, AP-8 errepidearen inguruan eta lehendik dauden herrigunetik gertu higadura-prozesuak dituzten zenbait eremu daude. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren arabera, higadura-arriskuak hauteman dira ipar-mendebaldean, Getariarekin muga egiten duen puntuan, ipar-mendebaldeko kostaldean eta Urolako itsasadarraren inguruko beste bi eremutan.
- Udal-barrutian, bide-azpiegiturak dira zarata-foku nagusiak, batez ere AP-8 eta N-634, eta trenbidea (Euskotren Bilbo-Donostia).

Zumaia ingurumen-zarataren maparekin bat etorriz (2009), Oikia auzoa da errepideetako trafikoa (AP-8) gehien jasaten duen eremua eta, beraz, ikuspuntu akustikotik kaltetuena; bertan, gauez 55-65 dB (A) artekoak izaten dira zarata-mailak. Oro har, herrigunetan hobeak dira maila akustikoak; hala ere, kale nagusietatik gertu dauden eremu batzuetan bizitegi-erabilerari dagozkion kalitate akustikoko helburuak gainditzen dira puntualki.

Bestalde, Gipuzkoako errepideen zarata-mapa estrategikoen arabera, udalerrriaren zati bat AP-8 eta N-634 errepideen afekzio akustikoko eremuaren eraginpean dago.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Ingurune fisikoan ondorio esanguratsuak dituzten jarduketak egiteko, desegokitza jo beharko dira aurreko atalean jasotako ingurumen- eta/edo kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Zentzu horretan, desegokitza jotzen dira Urolako Itsasadarreko hezegunetan eta KBEn nabarmen eragiten duten jarduketak. Edonola ere, Urolako itsasadarraren KBEn araudian (215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuarioren Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta kontserbazio-neurriak onartzeko dena) eta EAEko Hezeguneeen LPSan xedatutakoa izan beharko da kontuan.

Hasiera batean, desegokia izan daiteke, orobat, uholde eremuetan eta/edo zarata-kutsaduraren eraginpeko eremuetan hiri-garapenak egitea; hots-kutsadura duten esparru horiek lehengoratzeko neurriak hartzen hasi behar da.

HAPOn Aurrerapenak planteatzen dituen proposamenen arabera, garapenaren xede diren eremu batzuek uholde-arriskua dute. Nolanahi ere, Planak jasotzen duen erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du honako arau hauetan ezartzen diren mugekin: Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa); eta Kantauri Ekialdeko mugape hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrologikoaren araudiaren (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua) 40. artikulutik 42.era artekoak.

Halaber, eragin akustikoa duten eremuek, oro har, hots-kutsadurari buruzko araudia bete beharko dute, bai eta EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua ere. Etorkizunean ezin izango da egin hirigintza-garapenik kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

Hirigintza-garapen berriei heldu ahal izateko, naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru artifizializatuak eta lurzoru kutsatuak. Ahal den neurrian, balio agrologiko handiko lurzoruak beste erabilera batzuetarako ez birkalifikatzeko ahaleginak egingo dira.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, ingurumen-alderdi garrantzitsuenak zein diren laburbiltzen da –ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen dira alderdi horiek–:

Natura-ondareari dagokionez:

- Lurzoru urbanizaezinaren antolamenduari dagokionez, oro har positiboki baloratu da proposamena. Hala ere, gogorarazten da, Itsasertza Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko (LPS) 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAPOk lurzoru urbanizaezinaren kategorian jaso behar dituela LPSan Babes Bereziko eta Ingurumenaren Hobekuntzarako eremu gisa definitzen direnak, tresna horrek 29. artikuluan ezartzen duen erabileren erregulazioa oinarritzat hartuta.
- Hiri-garapeneko, ekipamenduetako, espazio libreetako eta mugikortasun alternatiboko proposamenei dagokienez, bereziki kezkarria da OM-ZUM3 mugikortasun alternatiborako proposamena; izan ere, haren zati handi bat Urolako Itsasadarraren KBEan dago (bi zubi berri itsasadarraren gainean eta itsasertzetik igarotzen diren zatiak). Horrenbestez, esku-hartzeak izan ditzakeen ondorioen azterketa bereziki azpimarra dadila eskatu da.

Balizko lurzoru kutsatuei dagokienez:

- *Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legea* betez, beharrezkoa izango da lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena izapidetzea, baldin eta lege horren 23. artikuluan jasotako egoeraren bat gertatzen bada.



Horregatik, inbentariatutako kokaleku batean edozein esku-hartze abian jarri aurretik, beharrezkoa izango da, lehenik eta behin, lurzoruaren kalitatearen azterketa bat egitea lurzoruaren kutsadurarekin lotutako arriskurik izango ez dela bermatzeko, ez langileentzat ez ezarritakoarekin bat lursailak izango duen erabilera berriko erabiltzaileentzat; bigarrenik, bertan utzitako hondakinak, eraikinak eta hondeatuko diren lurrak egoki kudeatuko direla bermatu beharko da, indarrean den hondakinen arloko legedia betez.

- Era berean, adierazi behar da lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak eta lehengoratzeko neurrien diseinua eta exekuzioa lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta lehengoratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duen urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arabera akreditatutako erakundeek gauzatu beharko dituztela.

Kultura-ondareari dagokionez:

- Beharrezkotzat jotzen da Arkitektura Ondarearen Katalogoa berrikustea eta berrantolatzea. Horretarako, dirudienez aurrerapeneko zerrendetan sartu ez diren udal edo tokiko babes-maila proposatu zaien elementuak txertatu beharko lirateke: Juan Belmonte 3. zk.ko etxea (77. fitxa), Axular ibiltokia 3. zk.ko etxea (93. fitxa) eta Eusebio Gurrutxaga kaleko zerbitzu publikoak, z/g (95. fitxa).
- HAPO idatzi ondorengo faseetan, babes bereziko araudi bat sartzea komeni da Monumentu / Monumentu Multzo izendatzeko proposatu diren elementuentzat, eta udal edo tokiko babes-proposamena duten elementuentzat.
- Katalogoan elementu arkeologikoen fitxak sartzea eta horientzako babes-araubide espezifiko bat ezartzea gomendatzen da, interes arkeologikoa duten bi elementuak barne hartuz, gaur egun babes juridikorik ez izan arren: Farolako Talaia (42. zk.) eta Talaimendiko Talaia (43. zk.). Babesteko xedapenean araubide berezirik ez badute, araubide hori harmonizatu edo Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak ematen dien babes-araubidera bideratu beharko da. Gaur egun babes juridikorik ez dutenen kasuan, ustezko eremu arkeologikoen trataera izango litzateke guztietan egokiena, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 65. artikuluan jasotzen dena.

6. Ingurumen-azterketa estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena.

Planean jasotako hainbat zehaztapenek indarreko Arau Subsidiarioetan ezarritakoak aldatzen dituzte. Ingurumen-ebaluazio berriak jarduketa-proposamen berriek sortutako ondorio espezifikoak hartuko ditu oinarri. Alegia, kontuan hartu behar diren ingurumenaren gaineko eraginak honako hauek izango dira soilik: Planak jasotzen dituen proposamen berrien edo dagoeneko existitzen direnen aldaketen ondoriozkoak; eta ez dira kontuan hartuko onartutako plangintza aldatu izan ez balitz ere gertatuko liratekeen ondorioak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia izan beharko du, eta haren osagarri erabiliko da halaber planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak II. eranskinean jasotakoa.

Aurrekoarekin bat etorritik, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako Planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-efektuak
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, azterketa) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalena eta xeheena; honako hauek, zehazki:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten Plana, eta argi eta garbi identifikatuko da Plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketen ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterketan, laburpen txiki bat jasoko da Planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Azterketak labur-labur jasoko du nola hartu diren kontuan Planaren elaborazioa egitean ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

b. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira Planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko Planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere. Aurkeztu beharko da zer erreferentzia eta data duten hierarkian planaren gaineratik dauden plan edo programen onespenezik, eta zehaztuko da ea plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazio estrategikoaren mende jarri diren. Hala badagokio, adierazi beharko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkiaz Planaren gaineratik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baita plana garatzeko beste tresna batzuetan ezarritakoak ere, baldin eta ebaluatu beharreko Planaren eremuari edo xedeari aplikatzekoak badira. Ingurumen-adierazpen estrategikoen erreferentzia aurkeztuko da, zehaztuta zer aldizkari ofizialetan argitaratu diren, eta kontsulta-gunerako esteka txertatuta.

c. Planaren bitartez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira.

d. Adieraziko da ingurumena babesteko zer irizpide, helburu eta zehaztapen finkatzen diren arauetan eta Planarekin hierarkia-harremanik ez duten beste plan eta programa batzuetan ere (Batasunekoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak edo tokikoak), baldin eta aplikatu beharrekoak badira.

Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Zarautz-Azpeitiko (Urola Kosta) Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala.
- 215/2012 Dekretua, urriaren 16koa, eskualde biogeografiko atlantikoko hamalau ibai eta estuario Kontserbazio Bereziko Eremuak izendatzeko eta horietako kontserbazio-neurriak onartzeko dena.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021), bereziki urak har ditzakeen eremuei lotutako zehaztapenak eta Babestutako Eremuen Erregistroa.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Hezeguneak Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Kostaldea Babesteko eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamendurako Lurzoru Publikoa sortzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan bisoi europarra (*Mustela lutreola*) kudeatzeko plana.
- Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeari buruzko Legearen (ekainaren 25eko 4/2015 Legea) 23. eta 31.4 artikulua.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean hautatutako alternatiben bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, Plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

Antolamendua aldatzen den esparru/azpiesparru guztietarako, datu hauek eman beharko dira:

- Planoan kokatzea.
- Azalera.
- Indarrean dagoen plangintzaren eta Planak sartutako proposamen berrien arteko alderaketa: hirigintza-garapen berriak, eraikigarritasuna handitzea, bide berriak eraikitzea edo beste ekintza batzuk.
- Nabarmen kaltetu daitezkeen eremuen ingurumen-ezaugarriak.

Informazio hori argi eta garbi identifikatu beharko da, eta, horretarako, ekarpen kartografiko batean oinarritzea gomendatzen da, islatutako informaziora egokitutako eskala batean.

Azterlanak HAPOn helburu nagusien laburpen txiki bat jaso beharko du, eta era berean, xehetasun osoz deskribatu beharko ditu Planean txertatutako proposamen, aldaketa edo xehakapen berriekin lotutako ekintzak –aldaketa edota xehakapen horiek eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamendua oinarri hartuta bereiziko dira, betiere ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzaizkete–; horretaz gainera, eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak hartuko dira kontuan.

Horrela, jarduketa-eremuetarako proposamen zehatzen definizioa jaso beharko du IAEK, HAPOn aurrerapenean aurkezten diren jarduketa-alternatiba irekiak zehaztuta.

Zentzu horretan, lurzoru urbanizaezinaren antolamendua sartu beharko da IAEn. Antolamendu-kategoriak eta gainjarritako baldintzatzaileak mugatu eta definitu beharko dira, bai eta horietako bakoitzean esleitutako erabilera-araubidea ere.

Zentzu horretan, Itsasertza Babestu eta Antolatze Lurralde Plan Sektorialeko (LPS) 30. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAPOk lurzoru urbanizaezinaren kategorian jaso behar ditu LPSan Babes Bereziko eta Ingurumenaren Hobekuntzarako eremu gisa definitzen direnak, tresna horrek 29. artikuluan ezartzen duen erabileren erregulazioa oinarritzat hartuta.

b. Planeko proposamenak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarri buruzko aurreikuspen bat egingo da. Zehazki, arreta berezia jarriko zaie hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo ingurune eraldaketa nabarmenak eragin ditzaketen jardueri, baita lurzorua kutsa dezaketen jarduerak nozitzen edo nozitu dituzten lurzoruetan eragina dutenei ere.

Bestalde, Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartutako planak edo proiektuak identifikatu beharko ditu IngAEk, garapenaren baldintzak ezartzeko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzeko sortutako eraginak gutxitzeko gidalerroak ezartzeko.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatuko dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako Planeko ekintza bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita Planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketak kokapena, pdf eta shape formatuetan.

6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira Plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauek buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0. aukera edo esku ez hartzeko aukera ere hartuko da kontuan; kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera Planaren proposamenak aplikatu ezean.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

Zentzu horretan, bereziki kezagarria da OM-ZUM3 mugikortasun alternatiborako proposamena; izan ere, haren zati handi bat Urolako Itsasadarraren KBEan dago (bi zubi berri itsasadarraren gainean eta itsasertzetik igarotzen diren zatiak). Horrenbestez, esku-hartzeak izan ditzakeen ondorioen azterketa bereziki azpimarra dadila eskatu da.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren egoeraren ezaugarriak zehaztea

Azterketak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanez.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta Planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara mugatuko da ingurune hori.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterketetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitezkeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.

Azterketak eskalako planoak jasoko ditu, ingurunearen aldagaiak islatzeko modukoak.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, horien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru mota. Lurzoru motari dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko dira dauden natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak, hala nola ibaien ibilguak, mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes-mailari, kalteberatasunari eta egungo presioei eta mehatxuei buruzko datuak ere, eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotu egin daitezkeen adieraziko da.

Hasierako dokumentu estrategikoak Zumaia udalerraren ezaugarri nagusien laburpen bat jasotzen du, zeina, oro har, egokitzat hartu baita natura-ondarearen alderdiei dagokienez; hala ere, zenbait datu zehaztu beharko dira, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotakoen artean.

Gainera, gogorarazi behar da udalerriko natura-ondarearen ikuspuntutik interes handiena duten elementuak antolamendu-kategoriekiko gainjarritako baldintzatzaile gisa jaso beharko direla.

Natura babestearen arloko araudiaren arabera babes-figuraren bat duten espazioei eta eremuei dagokienez, azterlanak hainbat alderdi xehatuko ditu dagozkion kudeaketa-planetan bildutako informazioa oinarri hartuta eta, ahal den neurrian, informazio hori eskuragarri dauden datu eguneratuagoekin zabaldua. Alderdi horiek honako hauek izango dira:

- Dagokion gunea edo eremua izendatzea eta babestea eragin duten balio eta elementu nagusiak deskribatuko dira, hala nola basafloa eta basafaunaren habitatak eta espezieak, lotura-funtzioa duten paisaiako elementuak eta abar.
- Elementu horiek espazioan duten kontserbazio-egoerari eta jasaten dituzten presio eta mehatxu nagusien ebaluazioari buruzko laburpena erantsiko da.
- Gainera, gunearen kontserbazio-elementuei buruzko kontserbazio-arauen eta helburuen laburpen bat jasoko da.
- Babesaren xede diren gunetan eta eremuetan kudeaketa-funtzioak betetzen dituzten administrazio-organoa eta -unitatea identifikatuko dira.

c. Paisaia. Paisaia-pertzepzioaren ikuspegitik interesgarria den elementurik badagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz jaso ahal izan diren datu guztiak emango dira, kontuan hartuta, besteak beste, higadura-arriskua, lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasuna, uholde-arriskua, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatzeko moduko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatu ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes-maila zehaztuko dira. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesema eman dion arau-xedapenaren erreferentzia aipatuko da.

Alde horretatik, kultura-ondasunen babesema zehazteko, ebazpen honen 5. apartatuan jasotako irizpideak hartuko dira kontuan.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta Planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta berriztaezinen kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia eta abar), jendea bizi den eremuen presentzia eta kaltetua izan daitekeen biztanleria eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren Planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoerei, baita eragina jasateko arriskua duten alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterketa estrategikoak.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, eta haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu ahul edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera eman beharko du. Apartatu hau idazteko, ebazpen honen 3. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira kutsatutako lurzoruen presentziarekin lotutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hotskutsadurari buruzko Dekretua (urriaren 16ko 213/2012) aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Bi alderdi horiek azterketan jorratuko dira.

6.3. Proposatutako Planaren ingurumen-ondorioak

a. Apartatu honetan, identifikatu eta aztertuko da zer efektu izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek 6.2. apartatuan deskribatutako ingurumen-kalitateko elementuetan, eta efektu horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer-nolako ondorioak dauden, honako hauek berezita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

Azterlanak bereziki jorratu beharko du jarduketa-proposamen berriekin eta Planak indarrean dagoen antolamenduan egindako aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien arteko konbinazioaren ondorio metatzaile eta sinergikoak.

Zehaztuko da, hala dagokionean, hautemandako ondorioak eraginik sortzen ote duen Natura 2000 Sareko lekuetan eta 6.2.1.b apartatuan jasotako beste gune batzuetan zaindu beharrekoak diren elementuetan.

Halaber, hala badagokio, zehaztuko da zer efektu dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

Deskribatutako Planaren efektu bakoitzari, berriz, kode bat esleituko zaio. Kode hori azterketaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, horren erreferentzia behar bada.

Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Zumaiako HAPOn eremuko eremu babestuen artean Urola Ibaiaren Kontserbazio Bereziko Eremua dago. Eremua kaltetu dezakeen proposamen oro abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.4 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera ebaluatu beharko da; kasu horretan, azterlanak barnean hartu beharko du abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35.1.c artikuluan jasotzen den berariazko apartatua, Natura 2000 Sareko guneek jasan ditzaketen ondorioen ebaluazioari buruzkoa.
- Urolako Itsasadarra KBEan eta interes bereziko beste eremu batzuetan kontserbatu beharreko elementuen gaineko eraginak karakterizatu eta balioetsiko dira. Balorazio hori egiteko, kontuan hartu beharko dira 6.2.1.b apartatuan zehaztutako kontserbazio-egoera, presioak eta mehatxuak eta kontserbazio-helburuak. Kasu horretan, apartatu hori xehetasun-maila jakin batekin garatuko da, aurreikus daitezkeen ondorioak behar bezala identifikatzeko eta eraginaren neurriaren gainean egon daitezkeen zalantzak argitzeko.

Zentzu horretan, azpimarratu behar da xehetasunez aztertu beharko direla Urola ibaiaren ertzetan eta ibaia zeharkatzen duten eremuetan proiektatutako hainbat mugikortasun-proposamen (OM-ZUM 03, OM-ZUM 04) eta eguzki-baratzearen proposamena (EL-KOR 01 Txantonenea); izan ere, azken hori ibaiaren eskuinaldean dago, Kortaren parean, KBEaren mugen barruan. Era berean, Urola ibaiaren ertzetan kokatuta dauden eremuak (AP-ZUM 06 Torreaga, BIZ-ZUM 24 Urola, EL-KOR 01 Txantonenea eta abar) egikaritzetik eratorritako zeharkako erasanak baloratu beharko dira.

- Aztertu beharko da zer eragin izan dezaketen hirigintza-garapenek uholde-arriskuari dagokionez, eta behar bezala justifikatu beharko da indarrean dagoen plan hidrogikoen araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterketa hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, haiek ere

aurkeztu beharko dira gainerako dokumentazioarekin batera, ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko.

- Bereziki ebaluatuko da bisoi europarraren interes bereziko eremu diren ibai-ibilbideetan egingo diren ukipenak.
- Eta balio agrologiko altuko lurzoruen ukipenak ere aztertuko dira.
- Era berean, aztertu beharko da zer eragin eta ondorio dituen HAPOk proposatutako antolamenduak Batasunaren intereseko habitatetan, espezie autoktonoen basoetan eta interes bereziko beste eremu batzuetan.
- Kutsatuta egon daitezkeen kokaguneetan egindako indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak.
- Etorkizuneko hirigintza-garapenen kasuan, aurreikusitako erabilerarako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak betetzen diren aztertuko da, eta, horretarako, indarreko araudian araututako metodologia erabiliko da, betiere ebaluatzen den antolamendu motara egokituta (egiturazkoa edo xehatua). Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak ezarritakoaren arabera, etorkizunean hirigintza-garapenak aurreikusten badira (hirigintza-kalifikazioaren aldaketak barne) eta Planak eremuen antolamendu xehatua jasotzen badu, hirigintza- eta ingurumen-izapideetarako dagokion eragin akustikoaren azterlana sartu beharko da, dekretu horren 37. artikuluan aipatzen den edukiarekin.

b. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Efectuen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzoruen kalitate-estandarrek edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, datu neurgarriak erabilita planean aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruz. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondorio edo efektu horien aurreikuspenean.

c. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

d. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez Planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein plangintza-tresnari eragingo zaion.

e. Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-ondorioak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den azterlanaren 6.3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, Planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak, natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta hautemandako ingurumen-arazoen aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta azterketaren 6.3. apartatuan identifikatu diren eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi diren ondorioekin lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Urolako itsasadarreko KBEan eta ondare naturala kontserbatzeko eta konektagarritasun ekologikorako interes bereziko udalerriko beste eremu batzuetan kontserbatu beharreko elementuak babesteko berariazko neurriak. Zentzu horretan, ebazpen honetan aipatu diren eremuak eta espezie mehatxatuak babesteko arauetan eta planetan aurreikusitako babes-neurriak eta kontserbazio-jarduketak xedatuko dira, betiere horiek aplikagarriak badira hautemandako balizko ondorio kaltegarrirei aurrea hartzeko edo ondorio horiek zuzentzeko.
- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, txosten honen aurreko apartatuetan aipatutako planetan ezarri irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- Ibai-ibilguen inguruan dauden garapen-eremuetan, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan (2015-2021) ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta, ahal denean, horiek lehengoratzea, biziberritzea eta hobetzea sustatuko da.
- Gainera, potentzialki kutsagarriak diren jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lursailak daudenez eta, ondorioz, lursail horiek etorkizuneko erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenez, gauza bera egin beharko da lurzorua kalitateari buruzko adierazpenari begira, Plana behin betiko onartu aurretik, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraikiz.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera eta eremu akustikoak eta erabilera aurreikusiak kontuan hartuta.



- Era berean, irizpideak zehaztuko dira Planaren garapena paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak egindako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeako eskuliburuan* jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta abar. Horretaz gainera, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena deuseztatzeko eta saihesteko.
- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, IHOBek egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: *Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida*. *Udalsarea 21 lan-koaderno* eta *Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko*.

c. Adieraziko da Planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarria edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterketan, ingurumena zaintzeko programa bat garatuko da, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen bilakaera zaintzea, bai eta Plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoak bilakaera ere.
- Plana gauzatzeak eragindako ingurumen-ondorioak aztertzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek eragozteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den Plana gauzatzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek bat etorri beharko dute azterketaren 6.4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriekin.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterketan, bai eta kasu bakoitzean datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren azterketaren 6.1.1. apartatuan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen Planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta/edo konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio esanguratsu horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik Plana garatzeko. Ondorio hori gauzatu ahal izateko, azterketaren gainerako apartatuetan jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterketak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonak erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Izapideak: jendaurreko informazioa eta kontsultak

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 eguneko epean.

Era berean, organo sustatzaileak, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, irismeneko dokumentu hau egiteko kontsultatu diren eraginpeko administrazio publikoekin eta pertsona interesdunekin kontsultatuko du gutxienez Planaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Honako hauek izan dira:

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- URA. Uraren Euskal Agentzia.
- Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia, Mendien eta Naturaguneen Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.



- Nekazaritzako eta Lurralde Oreko Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kudeaketa eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioaren EAEko Kosten Mugaketa.
- Eguzkizaleak Aisialdirako Elkartea.
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkartea.
- Itsas Enara Ornitologia Elkartea.
- Haritzalde.

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organuari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatzeko eta dokumentazioa entregatzeko, nahitaez bete beharko dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideak, esteka honetan jasotzen direnak:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/ingurumen-ebaluazio-estrategikoaren-prozeduraren-tramitazioa/web01-a2inginp/eu/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eia/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteko-GIDA.pdf

Bigarrena.- Ebazpen hau Zumaiako Udalarari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 30a.

Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren zuzendaria.

Javier Agirre Orcajo.

(Elektronikoki stua.)